



UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROA
HEZKIDETZAN ESKU-HARTZEN I: INDARKERIEI AURRE EGITEAZ GAIN,
TRATU ONAK SUSTATZEKO IBILBIDE TEORIKO-PRAKTIKOAK (9ª ED.)

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2023-2024

ARLOA: Gizarte eta Zuzenbide-Zientziak

KREDITUAK: 5 ECTS

MATRIKULA TASA: 250 euro

ZUZENDARITZA AKADEMIKOA: M^a Aranzazu Campos Rubio

AURKEZPENA

Hezkidetzan Esku Hartzen: indarkeriei aurre egiteaz gain, tratu onak sustatzeko ibilbide teoriko-praktikoak (UPV-EHU) hedakuntzako ikastaroa edozein hezitzaile zein hezkuntza-eragilerentzako hezkidetzaren oinarriak ezagutzeko eta berehala inguru hurbilean norberarekin, besteekin eta ingurumenarekin tratu onak sustatzeko praktika hezkidetzailleak martxan jartzeko prestakuntza bermatzen du. 5 ECTS/125 ordukoa da, online, euskaraz eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Homologazioa du.

ZURE BILA GABILTZA

Ikastaro honekin ikasiko duzu: Offline zein onlinean eguneroko bizitzako eremu ezberdinetan (pertsonala, soziala zein profesionala) sexismoa eta indarkeria matxistak errekonozitzen, baita esku-hartzeko estrategiak ere. Bakarka zein taldean, aurrez aurre zein online, ezagutza zein baliabide teorikoak eta praktikoak zureganatu eta partekatu ahal izango dituzu. Hezkidetzeta-materialak identifikatzen edo sortze bidean trebatzeko aukera izango duzu. Ikasleak tratu onean sozializatzeko aldera, hezkidetzara bideratutako ekintzak planifikatzeko tresnak eskuratuko dituzu. Ikastaroak aukerak eskainiko ditu, iraun bitartean zein gerora, Hezkidetzaren aldeko sare sozial digital euskaldunetan murgildu eta partaide aktiboa izateko.



BALDINTZAK

Edozein titulazio akademiko duen Gradutik (lehen lizentziatura eta diplomatura) Erdi eta Goi mailako Heziketa Zikloko titulazioa Ikastaro hau hezkuntzan jakin-mina duten guztiei zuzendua dago, eta bereziki haur eta nerabeen heziketan lan egiten edo egingo duten guztientzat. Egitasmo honetan parte har dezakete: Haur, lehen eta bigarren hezkuntzako irakasleak, Hezkuntza Fakultateetako ikasleak, Aisialdiko hezitzaileak, e.a. Orokorrean, haur eta nerabeen heziketan ardura dutenak edo interesatuak!

IRAKASKETA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2023/10/03-tik 2023/11/27-ra

EMATEKO TOKIA: On line

HIZKUNTZA: Euskara

INFORMAZIO BULEGOA

IKASTEGIA: Zuzenbide Fakultatea (Gipuzkoako Kampusa)

HELBIDEA: Manuel Lardizabal, 2. 20018 Donostia-San Sebastián

TELEFONOA: 943 015 143

HELBIDE ELEKTRONIKOA: hezkidetzaneskuhartzen@ehu.eus

WEBGUNEA: <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkidetzan-esku-hartzen@HezkeH>

ECTS KREDITU BAT 25 ORDUTAKOA DA